



**ELGOIBARKO OLASO HILERRIAN DAGOEN DUINTASUNAREN KOLUNBARIOAREN
MANTENTZE-LANAK EGITEKO, ELGOIBARKO UDALAREN ETA MEMORIAREN,
BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO-
HITZARMENARI BURUZKO LEGEZKOTASUN-TXOSTENA.**

81/2017 LGAKZ - LT

I. AURREKARIAK

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak (Gogora-k), 2017ko ekainaren 13an, idazpuruan aipatutako hitzarmenari dagokionez nahitaezko LEGEZKOTASUN TXOSTENA egiteko eskaria egin dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honi.

Eskaerarekin eta hitzarmenaren testuarekin batera (hau da, hasierako zirriborroa eta berau aldatzen duen geroagoko testuarekin batera), organo eskatzaileak memoria justifikatzailea eta ekonomikoa eransten ditu, eta baita Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren kudeaketa zerbitzuak egindako txosten juridikoa ere.

Honako txosten hau, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko 24/2016 Lehendakariaren Dekretuaren 6.1 h) artikuluan oinarrituz ematen dugu; bai eta, horrekin batera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 12.1.a) eta 14.1.a) artikuluek aurreikusitakoari helduz

Era berean, adierazi behar dugu, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekeo ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikulua edukiarekin bat, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokiola egin beharreko txosten juridikoa egitea, erregelamenduz zehaztutako kasuetan Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio- edo hitzarmen-proiektuekiko.

Garapen hori Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuan eman zen, eta horren 13. artikulua honako txosten honen beharrezkotasuna ezartzen du.

II. HITZARMENEN OBJEKTUA

Informatzen dugun hitzarmenak hura sinatzen duten alderdien lankidetzaren objektu bezala hartzen ditu Elgoibarko Olaso hilerrian dagoen Duintasunaren Kolunbarioaren mantentze-lanak.

Kolunbarioak gerra zibilean eta diktadura frankistan zehar desagertutako pertsonen egia, justizia eta ordaintza lortzeko eskubideari aditu nahi dio, Eusko Jaurlaritzaren lehentasun den legez, eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren Jarduera Plan barruan aurre ikusitako ekimenetako bat martxan jartzea suposatzen du.

Igorritako dokumentaziori gehitzen zaion memoria justifikatzailearen arabera, eta hain zuzen Gogora-ren ekimen baten aurrean gaudelarik, guztiz arrazoizko eta logikoa da, aipatu arrazoiengatik, Elgoibarko Udalaren ardura hutsean geratu behar ez luketen mantenu-lan batzuetan parte-hartzea posible egiten duen finantzaketarako mekanismo bat artikulatzea.

Gauzak horrela, eta horren ondoretarako, Sektore Publikoaren Eraentza Juridikoari buruzko, urriaren 1eko, 40/2015 Legean azaltzen den "Hitzarmen" tresna erabiltzera jo egiten da, zeinen bidez aipatu berri dugun objektuaren betetze zuzenera bideratzen diren alderdiek hartutako konpromisoak biltzen diren.

III. KOMPETENTZIA.

Alderdiek erabiltzen dituzten eskumenen analisiari modu egokian ekiten dio 2017ko ekainaren 7ko txosten juridikoak, eta hura bere osotasunean partekatzen dugu.

Egiazki, kontutan hartuaz Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2014 Legeak ezarritakoa, eta halaber, organo horren Estatutuak

onartzen dituen azaroaren 3ko 204/2015 Dekretuak (4.3 artikuluan) dioenari adituz ere, eztabaidaezina da Gogora-ren eskumena aztertzen dugun eremu honetan.

Beste horrenbeste gertatzen da Elgoibarko Udalaren eskumenari dagokionez. Kasu honetan, Erregimen Lokaleko Oinarrien apirilaren 2ko, 7/1985 Legean (2.k artikuluan) ezarritakoa da aplikagarri, hilerriei buruz eta ehorzte jardueri buruz udalek dituzten berezko eskumenen gainean esaten duenaren harira, Estatuaren eta Autonomia-Erkidegoen legeriaren arabera izango direnak. Zentzu berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua aipa daiteke.

IV. XEDAPENEN ANALISIA

Hitzarmen zirriborroak, azalpenetarako zati baten ondoan, zazpi xedapen dauzka guztira.

Haietan, eta hitzarmenaren objektuaren deskribapenarekin batera, alderdien konpromisoak aurreikusten dira eta Gogora-k jarriko duen hornidura ekonomiko zehatza, zeinarekin Duintasunaren Kolunbarioaren mantentze-lanen finantziarioari aurre egingo dion.

Konpromiso horiek ezin hobeto mugatuta daude: Gogora-k aipatu diren mantenu lanen finantziarioa hartzen du bere gain, eta bere erantzukizun izango dira bai erabili beharreko materialen kostua zein, Elgoibarko Udalaren obra brigadaren ahalmenak eta berezko lanak gainditzeagatik, kanpoko enpresaren batekin azpikontratatu behar daitezkeen lanen kostua ere (hitzarmenaren bigarren xedapenak dioenari adituz).

Bere aldetik, toki-erakundea ere mantenu-lanez arduratuko da, aipatutako zereginen ekingo dioten langileen soldata bere gain hartuaz (hitzarmenaren hirugarren xedapenak dioenari adituz).

Halaber, Gogora-k gastu horietarako gordeko duen urteroko gehieneko zenbatekoa zehazten da (5.000 euro), bai eta hori Elgoibarko Udalarari ordaintzeko modua ere (hiru hilabeteka), udalak faktura egokiak aurretiaz aurkeztuta, erabilitako materialei eta

azpikontrataturako lanei dagokien zenbatekoa zehaztuz (hitzarmenaren laugarren xedapenak dioenari adituz).

Honaino azaldu ditugun xedapenekin beste hiru gaineratzen dira, hitzarmenaren segimendurako batzorde tekniko bat eratzeari dagokiona, ez betetzearen ondorioei dagokiona (azken hau, ulertzen dugu, 2017ko ekainaren 7ko txosten juridikoan edukitako gomendioei erantzunez), eta hitzarmenaren iraunaldi eta amaierari dagokiona.

Hitzarmenaren edukia horrela adierazita, ez daukagu, legezkotasun aldetik, horren kontra ezer esaterik.

V. IZAPIDETZEA.

Igorritako espedienteak agerian jartzen du organo sustatzaileak aurrera eramandako izapidetzearen egokitasuna. Hari gehitu beharko zaio Ogasun eta Ekonomia sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eman behar duen txostena.

Aipaturiko izapidea bete ostean, hitzarmenak Gobernu Kontseiluaren baimena lortu beharko du sinatua izan ahal izateko, azkenik Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian publikatuta izan beharko duelarik. Horrela aurreikusten da, berariaz, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren XIII. Kapituluari.

VI. KONKLUSIOA

Azaldutakoarekin bat, Elgoibarko Olaso hilerrian dagoen Duintasunaren Kolunbarioaren mantentze-lanak egiteko, Elgoibarko udalaren eta Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren arteko lankidetzarako-hitzarmenari oniritzia ematen diogu.

Hau da nire txostena, 2017ko uztailaren 6an Vitoria-Gasteizen ematen dudana, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dudana.